

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIt). 2014ko 2. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 gehitu ziren 2014ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,9 nominala gehitu da

Eustatek emandako datuen arabera, 2014ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,9 gehitu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %1,2 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,9 nominala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa (p). II/2014

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	0,9	0,9	0,4	0,8
Araba	-0,8	-0,1	-1,4	-0,1
Bizkaia	0,8	0,4	0,4	0,3
Gipuzkoa	1,9	2,2	1,2	2,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-3,5	-0,4	-2,6	-0,1
Elikagaietan espezializatuta	-2,5	0,2	-1,1	0,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-4,2	-1,0	-3,8	-0,8
Beste produktuak	5,2	1,1	3,1	0,2
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	9,9	2,3	5,0	1,5
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	4,0	0,5	4,6	0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-1,2	1,1	-2,0	0,6
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	4,0	1,3	3,4	1,1
Automoziorako erregaia	-2,1	4,3	-1,9	1,1
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	1,2	0,4	0,6	0,1
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-0,9	0,5		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmenta nominalak %3,5 gutxitu ziren 2014ko bigarren hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %5,2 gehitu eta Automobilgintzarako erregaia %2,1 gutxitu, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %2,5 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %4,2. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %9,9 gehitu eta Etxeko ekipamenduan %4,0; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %4,0; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-1,2.


2014ko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak Araban bakarrik gutxitu dira urte artean, %0,8. Bizkaian %0,8 gehitu ziren salmenta nominalak eta Gipuzkoan %1,9.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %0,4 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %0,6ko gehikuntza izan zuten 2013ko bigarren hiruhilekoaren aldean, termino finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala, %2,6; Gainerako produktueta %3,1 gehitu, 2013ko hiruhileko beraren aldean; Automobilgintzarako erregai-salmentetan %1,9ko jaitsiera prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-1,1 dugu espezializatuan termino errealean; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-3,8. Gainerako produktueta Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %5,0 gehitu eta Etxeko ekipamenduan %4,6; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %3,4; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-2,0.

Prezio finkoetan eta urte artean: Araban %-1,4; Bizkaian %0,4; Gipuzkoan %1,2.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean %0,8ko gehikuntza dugu aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2014ko lehen hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,5 handitu da 2014ko bigarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua